

IN MEMORIAM

GERARDO LOPEZ DE GUEREÑU

Gerardo Lopez de Guereñu Iholdiren heriotzak, urtarrilaren 11an gertatutakoak, orri hauek iluntzen ditu.

Gerardo Lopez de Guereñuren kultur lanaren parte garrantzitsu bat Eusko Ikaskuntzan eginkoa zen. Eusko Ikaskuntzako Antropología eta Etnografía Saileko kide gartsua zen, Arabako Lehendakariorde genuen eta, gainera, Eusko Folklore Urtekariaren eta Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren Erredakzio Batzordeko partaide zen.

Mendizalea izaki, Izadia maite eta bizi zuen izpiritua pedagogiko batez, eta honen emaitza da argazkietan gauzatutako artegintza emankorra. Mendizaletasuna eta argazkigintza, hona hemen Lopez de Guereñu Iholdiren Etnografi lan miresgarriak etengabe abestera etorritako bi alor.

Gerardo Lopez de Guereñuk ez zion amore ematen erretorikari, ez eta dibagazio inprobisatuari ere. Luma ere xehea eta zehatza zuen, idazgaia sakon ezagutzeak emandako baliapideez landua. Etnografiaren alorrean egindako lan haundi bezain garrantzitsua eredugarria da, metodo eta zehaztasun zientifikoaz burutua.

Gizatasun haundiko izaera zuen Lopez de Guereñuk. Lege oneko laguna genuen, adiskidetasun zintzo eta desinteresatuaren aldekoa. Lagun guztiok maitatua genuen horregatik, eta betirako izango dugu gogoan bera ezagutzeko zortea izan genuenok. Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariak bere dolmina adierazi nahi du euskal kulturaren ikerle sutsu eta mirestu honen galeragatik.

El fallecimiento de Gerardo López de Guereñu Iholdi, acaecido el 11 de Enero, enluta estas páginas.

Parte importante de la actividad cultural de Gerardo López de Guereñu se hallaba identificada con Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. Miembro activo de la Sección de Antropología y Etnografía, desempeñaba la Vicepresidencia de la Sociedad por Alava y formaba parte del Comité de Redacción del Anuario de Eusko Folklore y de la Revista Internacional de los Estudios Vascos.

Su amor a la montaña le llevó a vivir la Naturaleza, dentro de un espíritu pedagógico plasmado en fecunda realización artística en el predio de la fotografía. Montañismo y Fotografía, dos constantes de López de Guereñu Iholdi que enriquecen su dedicación feliz a la Etnografía.

Gerardo López de Guereñu Iholdi no casaba con los préstamos de la retórica y de la divagación improvisada. Su pluma era, asimismo, sobria y directa, alimentada en el conocimiento profundo de la materia objeto de interés. Su vasta e importante obra en el campo de la Etnografía es modélica, llevada a cabo con método y rigor científicos.

De temperamento que descubría sus caras cualidades humanas, López de Guereñu rendía culto a la amistad de buena ley, a la amistad desinteresada. Contaba con el afecto de sus amigos, y la llama de su recuerdo se conservará inextinguible para los que tuvimos la suerte de tratarle con aprecio. Por su parte, la Revista Internacional de los Estudios Vascos expresa su dolor por la pérdida irreparable de este estudioso y admirado investigador del acervo cultural vasco.

EUGENE GOYHENETXE

Uztaritzen 1915.eko ekainaren 15an jaio zen eta 1989.eko urtarrilean hil. *Ecole des Chartes* delakoan ikasketa unibertsitarioak egin zituen artxibero paleo-grafoaren titulua lortuz (1949). 1968.ean Pabeko Unibertsitatean Euskal Historiazko katedra irabazi zuen eta 1982.an Euskal Herriko Unibertsitateak Doctor Honoris Causa izendatu zuen. Euskal lerroko hainbat zientzi aldizkarietan idatzi du, RIEV tarteko dugularik. Ahaztu ezinekoak dira aldizkarietan liburu eta ikerketei buruz idatzi zituen aipamen kritikoak. Ipar Euskal Herriko historiaren arloan, bereziki erdi aroaz eta onomastikaz, bere ikerketak oparoak bezain zehatzak eta jakingarriak ditugu. Tokian tokiko historia eta geografiaren ezagutzaren garrantzi didáctica ere azpimarratu zuen. Bere produkzioan, aldirik oparoena 1960.an hasten da 1961.an *Notre terre basque* liburua argitaratu zuen eta 1979.an *Le Pays Basque. Soule, Labourd Basse-Navarre* liburu mardula; iparraldeaz histori ikuspuntu orokor garrantzitsua, alegría.

Nació en Uztaritze el 15 de Junio de 1915 y falleció en la misma localidad labortana el mes de Enero pasado. Realizó sus estudios universitarios en la Ecole des Chartes, habiendo alcanzado el título de Archivero paleógrafo (1949). Ganó en 1968 la cátedra de Historia y Civilización vasca en la Université de Pau et des Pays de l'Adour y en 1982 fue nombrado Doctor Honoris Causa por la Universidad del País Vasco. En Diciembre de 1988, la Sociedad de Estudios Vascos le concedió el premio Manuel Lekuona. Ha colaborado en la R.I.E.V. y en numerosas revistas científicas, siendo relevantes las informaciones y comentarios en la sección de recesiones críticas. Ha manifestado también una renovada inquietud por la didáctica del entorno desde el punto de vista histórico-geográfico y destacan sus investigaciones sobre el ciclo medieval de la Vasconia continental, en particular sus estudios de onomástica. Su producción científica creció a partir de 1961, año en el que publicó *Notre terre basque*. Una voluminosa y enciclopédica obra de síntesis histórica del País Vasco continental: *Le Pays Basque. Soule, Labourd, Basse-Navarre*, fue editada en Pau en 1979, en la que trató de ofrecer un estado de la cuestión.